



## [Iruña]Manifestación 15 de mayo: 'Cuida tu Centro de Salud. Cuídate a ti. Atención Primaria Aurrera'

---

PLATAFORMA NAVARRA DE SALUD/NAFARROAKO OSASUN PLATAFORMA :: 21/04/2021

Hacemos ese llamamiento a la vista del deterioro que para las personas y para el conjunto de profesionales está sufriendo la atención en los centros de salud de Navarra

**[Euskara]**

**Asteazken honetan, apirilaren 21ean, Nafarroako Osasun Plataformak iragartzen du Iruñeko**

**kaleetan zehar manifestazioa deitzeko asmoa duela maiatzaren 15ean, 17:00etan, honako lelo**

**honekin:Zaindu zure osasun etxea. Zaindu zeure burua. Oinarrizko Osasun Laguntza Aurrera.**

Dei hori egiten dugu jabetu garelako Nafarroako osasun etxeetako arretak gainbehera handia

izan duela, bai herritarrekiko eta bai profesionallekiko.

Pandemiak egoera areagotu egin du, eta 2008tik jasaten ari garen murrizketei gehitu zaizkie

murrizketa berriak, batik bat aurreikuspen faltagatik, gabezia historikoagatik eta orain Covid

zentroetan metatu diren giza baliabide eta baliabide material berri guztiengatik; horien

ondorioz, osasun etxeetako profesionalak kalitatezko arreta eskaintzeko gaitasunik gabe utzi

dituzte.

Oraindik ez dugu berreskuratu "Covid aroan" galdu dugun aurrez aurreko arreta; zenbait osasun

etxetan hitzordua hartzeko 12-15 egun luze behar dira, eta plantilla horiek indartu beharrean,

txertaketa-zentroetara eramaten dituzte langileak; gaixotasun "arruntak" dituzten pertsonak

ez dira behar bezala artatzen; baliabideak dituzten pertsona askok aseguru pribatuak

kontratitzen dituzte; arreta eskuratzeko unean arrakala teknologikoa sortzen ari da, ...

Departamentuak alde batera utzi ditu osasunerako prebentzioa eta hezkuntza (osasunarretaren ikuspegi komunitarioaren zutabeak) eta eskariak erantzutera mugatu da; horren

ondorioz, merkatu-hobi bat sortu zaie gero eta handiagoak diren aseguru pribatuei.

Herritarren eta profesionalen arteko harreman-giroa ezinbestean hondatzeko arrisku larrian dago; izan ere, langileak ahaztuta daude, askotan alde batera uzten dituen kudeaketa baten ondorioz, eta horrek higadura eta motibazioa galtzea eragiten die. Bien bitartean, herritarrek ez dituzte beren beharrak asetzen.

Erreakzionatzeko unea da, eta erreakzioa zeregin komuna da. Profesionalek eta herritarrek erantzun bateratua emateko unea da, arreta prekarizatzen eta langileen lan-baldintzak murrizten ari den kudeaketa tamalgarri baten aurrean.

Horregatik guztiagatik, maiatzaren 15eko manifestazioan parte hartzera animatzen zaituztegu,

bai eta auzoetan, herrietan eta osasun-zentroetan Oinarrizko Osasun Lagutzaren alde sortzen

diren ekimen guztietan ere.

Animo, zuen zain gaude! Oinarrizko Osasun Laguntza Aurrera!

Nafarroako Osasun Plataforma/ Plataforma Navarra de Salud

### **[Castellano]**

La PNS/NOP hace pública su intención de convocar una manifestación por las calles de Iruñea para el 15 de mayo a las 17:00h con el lema: Cuida tu Centro de Salud. Cuídate a ti. Atención Primaria Aurrera.

Hacemos ese llamamiento a la vista del deterioro que para las personas y para el conjunto de

profesionales está sufriendo la atención en los centros de salud de Navarra.

La pandemia ha agravado la situación, y a los recortes que llevamos sufriendo desde 2008 se le

han añadido nuevos recortes derivados de la falta de previsión, el déficit histórico y la concentración de todos los nuevos recursos humanos y materiales en centros para covid,

dejando a los centros de salud y sus profesionales sin capacidad para ofrecer una atención de calidad.

Aún no hemos recuperado la atención presencial que hemos perdido durante la “era covid”; en algunos centros de salud las citas se prolongan a 12-15 días vista, y en vez de reforzarlos, el personal de esas plantillas es trasladado a los centros de vacunación; las personas con enfermedades “comunes” no son atendidas adecuadamente; muchas personas con recursos contratan seguros privados; se está generando una brecha tecnológica en el acceso a la atención, ...

La prevención y educación para la salud, pilares de una visión comunitaria de la atención primaria de salud se han abandonado por parte del Departamento, y se ha restringido a hacer

atención a demanda, lo que lleva a crear un nicho de mercado a los seguros privados que van ganando terreno.

El clima de relación entre ciudadanía y profesionales corre un serio riesgo de deteriorarse irremediablemente, ya que las plantillas se encuentran olvidadas por una gestión que en muchos casos las abandona a su suerte provocando su desgaste y desmotivación, mientras la ciudadanía no ve atendidas sus necesidades.

Es el momento de reaccionar, y la reacción es una tarea común. Es el momento de que profesionales y ciudadanía den respuesta conjunta ante una gestión nefasta orientada al recorte y precarización de la atención y de las condiciones de trabajo de profesionales.

Por todo ello, animamos a participar en la manifestación del 15 de mayo, así como a todas las

iniciativas que desde barrios, pueblos y centros de salud surjan en defensa de la Atención Primaria.

Ánimo, os esperamos. ¡Atención Primaria Aurrera!

Plataforma Navarra de Salud/ Nafarroako Osasun Plataforma/

---

<https://eh.lahaine.org/iruna-manifestacion-15-de-mayo>